

**JUANA M^a HERRADOR CARRIEDO
ANDREA, ZUZENBIDEAN
LIZENTZIATUA, IRUNGO
UDALEKO IDAZKARI NAGUSIA**

**DOÑA JUANA MARIA HERRADOR
CARRIEDO, LICENCIADA EN
DERECHO, SECRETARIA GENERAL
DEL EXCMO AYUNTAMIENTO DE
IRUN**

ZIURTATZEN DUT:

Udalbatzak, bi mila eta hamabiko abenduaren hogeita seian, eginiko bilkuran, besteren artean, honako akordioa hartu zuen:

“Gertaerak al bait gehien argitzeko, gerra zibilean eta frankismoan gertatutako gertakari historikoak berriz begiratzea beharrezko obligazioa da, Giza Eskubideak balioan jartzeko biktimei aitorten publikoa eta berrezarpen morala eskainiz. Ez jakitea eta ahaztea biktimentzako eta haien ondorengoentzako samin-iturri izateaz gainera, demokrazia kaltetzen duten zauri irekiak ere badira.

Gerra zibila 1936ko uztailean hasi zen, militar batzuek sustatutako estatu-kolpe faxista baten ondorioz. Militar horiek doilorkeriaz eraso egin zioten demokratikoki adierazitako herri-borondateari, ekonomi sektore pribilegiatuen babesaz baliatuz eta Alemania eta Italia faxisten potentzia militarren nazioarteko laguntzarekin.

Ondoren ezarritako erregimena, ideologia aldetik nazional-katolizismoa izeneko faxismoan oinarrituta, hurrengo berrogei urtetan iraunarazi zuten, oro har edozein oposio erpremituz. Horretarako tortura sistematikoa erabili zuten, bide bazterretan aseninatzeak eta “paseoak” gauzatu, sasi-epaiketak egin, heriotzara edo presondegietan zigor luzeak betetzera kondenatu erregimenari atxikitako epaileen bidez, eta hori, atxilotuak erabateko defentsa-gabezia utzita.

CERTIFICO:

Que el Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día veintiséis de diciembre de dos mil doce, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

“Volver la mirada hacia acontecimientos históricos ocurridos durante la guerra civil y el franquismo con el fin de esclarecer al máximo los hechos, constituye una obligación necesaria para poner en valor los Derechos Humanos a través del reconocimiento público y la rehabilitación moral de las víctimas. El desconocimiento o el olvido no son solamente fuente de dolor para las víctimas y sus descendientes, son también heridas abiertas que lesionan la democracia.

La Guerra Civil tuvo su origen en julio de 1.936, como consecuencia del golpe de estado fascista, promovido por unos militares que tuvieron la infamia de atentar contra la voluntad popular democráticamente expresada, valiéndose del apoyo de sectores económicos privilegiados y con la ayuda internacional de las potencias militares de Alemania e Italia fascistas.

El régimen instaurado posteriormente, sustentado ideológicamente en el fascismo denominado nacional-catolicismo, fue mantenido durante los siguientes cuarenta años mediante la represión generalizada de cualquier oposición, utilizando para ello la tortura sistemática, los asesinatos en cunetas y “paseos”; los juicios farsas, las condenas a muerte o las largas penas de prisión sentenciadas por jueces adictos al régimen en medio de una absoluta indefensión por parte

Franco hil ondoren, herri-borroka bultzadaz eta nazioarteko presioaz, frankistek aldaketa onartu behar izan zuten, eta horretatik, trantsizio politikoa izenekoa sortu zen, baina 1977an Amnistiaren Lege bat aterata, zeinak hainbeste krimenen zigorgabetasuna ziurtatzen zuen.

Hori del eta, adierazi behar da Nazio Batuen Erakundeko (ONU) Giza Eskubideen Batzordeak askotan eskatu eta erreklamatu diola Estatu Espainiarri konstituzioaurreko Lege hori baliogabe dezan, irizten baitio gizateriaren aurkako krimenak ikertzea eta argitzea galarazten duela, eta horiek ez dute inoiz preskribatzen nazioarteko jurisdikzioan.

Baina trantsizio haren hogeita hamabost urte ondoren, epaile argentinar batek frankismoaren eta bizirik dauden orduko protagonisten aurkako kausa bat aurrera darama, genozidio eta gizateriaren aurkako delituengatik, delitu horiek ezin baitute amnistiari jaso "puntu eta amaierako legea" bezalako baten bidez. Nahiz eta nazioarteko instantzia juridiko batetik etortria izan, kereila hau hasia da frankismoaren zigorgabetasunaren horma pitzatzen, zeinaren aurka hainbat eta hainbat pertsona eta memoria historikoa berreskuratzeko elkarte ari garen borrokatzen.

Trantsizioaren hogeita hamabost urte eta gerra zibiletik hirurogeita hamahiru pasa direnean gizateriaren aurkako krimenak argitzeari ezetza ematea giza eskubideak "per se", etengabe eta sistematikoki urratzea da, eta benetako demokrazia batek eskubide horiek arduraz errespetatzean oinarritu behar du.

Etorkizuna bizikidetzan demokratikoan finkatzeko, ezinbestekoa da justiziaren senaz ekitea, eta horrek berekin dakar gertaera guztiak

de los detenidos.

Tras la muerte de Franco, ante el empuje de la lucha popular y la presión internacional, los franquistas se avinieron a un cambio del que nació la llamada transición política, pero con la promulgación de una Ley de Amnistía en 1977 que aseguraba la impunidad de tantos crímenes.

A este respecto es necesario señalar que la Comisión de Derechos Humanos de la Organización de Naciones Unidas (ONU) ha solicitado y reclamado en reiteradas ocasiones al Estado Español la anulación de ésta Ley preconstitucional, por considerar que impide investigar y esclarecer crímenes de lesa humanidad, que en la jurisdicción internacional no prescriben nunca.

Pero treinta y cinco años después de aquella transición, una jueza argentina lleva adelante una causa contra el franquismo y sus protagonistas vivos, por delitos de genocidio y lesa humanidad, delitos que no pueden ser amnistiados por ningún tipo de "ley de punto final". Aún siendo desde instancias jurídicas internacionales, esta querrela empieza a resquebrajar el muro de impunidad del franquismo, contra el que tantas personas y organizaciones de recuperación de la memoria histórica venimos combatiendo.

La negativa al esclarecimiento de crímenes contra la humanidad a treinta y cinco años de la Transición y setenta y tres de la Guerra Civil, constituye una violación "per se", permanente y sistemática de los derechos humanos, en cuyo escrupuloso respeto debe basarse una verdadera democracia.

Para asentar un futuro de convivencia democrática resulta ineludible actuar con sentido de la justicia, que implica el

ezagutzea, egia berrezartzea eta errepresio frankista jasan zuten biktima guztiei aintzatespena eta berrezarpen morala eskaintzea. Egia, justizia eta ordaina.

Horregatik guztiagatik, **honako hau erabaki du Udalbatzak:**

1.- 1931n legez eraturako erregimen errepublikarraren aurka 1936ko uztailean gertaturako altxamendu militar faxista kondenatzea eta, halaber, ondoren berrogei urtetan disidentziaren eta askatasun-ekintzaren, gizarte-justiziaren eta eskubide nazionalen arrasto oro odolez errepremitu zuen diktadura.

2.- Auzitegi Nagusiak 2008ko azaroaren 18an irekitako 5zk.ko sumarioa geldiarazi izana deitoratzea, zeinaren xedea ikertzea eta garbitzea baitzen bai legez kanpoko atxiloketen erantzukizunak, bai 1936tik aurrera, gerra zibilean eta gerra ondorengo urteetan estatu espainiar osoan aurkari politikoak torturaren, erbesteratzearen eta pertsonen indarrezko desagertzearen bidez deuseztatzeko erregimen frankistak aurrez pentsaturako plan sistematikoa

3.- 1977ko Amnistiaren Legeak ekarri zuen injustizia salatzea, frankisten zigorgabetasuna eta errepresioa burutu zuten diktadurako botere-egiturak ez garbitzea ezarri baitzuen.

4.- Behar diren neurriak har daitezten babestea, erregimen frankistako errepresalietuei bermatzeko erregimen hari buruzko egia eskubidea gauzatu dezaten, justizia eskubide eraginkorra izan dezaten, gizateriaren aurka gauzatu zituzten krimenen erantzuleen egungo zigorgabetasun-egoera gaingitu ahal izateko, eta frankismoaren milaka biktimei eragindako urraketan ordain duina eta ez-diskriminatzailea izateko eskubidea izan dezaten, eta gizarte

conocimiento de todos los hechos, el restablecimiento de la verdad, y el reconocimiento y la restitución moral a todas las víctimas que sufrieron la represión franquista. Verdad, justicia y reparación.

Por todo ello, **el Pleno de la Corporación acuerda:**

1.- Condenar la sublevación militar fascista de julio de 1936 contra el régimen republicano legítimamente constituido en el año 1931, así como la dictadura posterior que de forma sangrienta reprimió durante cuarenta años todo vestigio de disidencia y ejercicio de libertad, justicia social y derechos nacionales.

2.- Lamentar que se abortara el sumario abierto por el Juzgado Central nº 5, de 18 de noviembre de 2008, destinado a investigar y depurar las responsabilidades de los delitos de detención ilegal, así como el plan sistemático preconcebido por el régimen franquista de eliminación de oponentes políticos a través de las torturas, el exilio y las desapariciones forzadas de personas a partir de 1936, durante los años de la guerra civil y siguientes de posguerra en todo el estado español.

3.- Denunciar la injusticia que supuso la Ley de Amnistía de 1977, ya que consagró la impunidad de los franquistas y la no depuración de las estructuras de poder de la dictadura que llevaron a cabo la represión.

4.- Reclamar que se adopten las medidas necesarias para garantizar a los represaliados y represaliadas del régimen franquista, el ejercicio de su derecho a la verdad sobre aquel régimen; el derecho a la justicia efectiva mediante la que se pueda superar el actual estado de impunidad de los responsables de los crímenes de lesa humanidad cometidos; el derecho a una reparación digna y no discriminatoria por las


osoak eskubidea izan dezan aldaketa soziopolitikoak, juridikoak eta instituzionalak gauzatzeko, ez errepikatzeko berme gisa.

5.- Babesa eta atxikimendua agertzea Argentinaren Errepublikako Buenos Aireseko 1. zk.ko Epaitegiaren 4591-10 Kereilarekiko, zeina María Servini de Cubría magistratuak baitarama aurrera frankismoaren giza-eskubideen urraketaren erantzuleen aurkako genozidioa eta gizateriaren aurkako delituak direla eta.

6.- Herritarrak animatzea frankismoaren krimenen aurkako Kereila babes dezaten, bai zuzenean errepresaliatuak izan zirenak edo haien senideak direnak kereilagile gisa agertuz, bai diktatura salatuz eta Kereilarekiko atxikimendua agertuz”.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan, jasoko den akta onartzetik azken batean erabakiko denari kalte egin gabe, honako ziurtagiri hau egin dut Alkate jaunaren aginduz eta bere oniritziarekin, Irunen, bi mila eta hamahiruko martxoaren(e)an.

O I / VºBº
ALKATEA/EL ALCALDE,



vulneraciones causadas a los centenares de miles de víctimas de franquismo; y el derecho del conjunto de la sociedad a que se implementen medidas de cambios sociopolíticos, jurídicos e institucionales como garantía de no repetición

5.- Manifestar su apoyo y adhesión a la Querrela 4591-10, del Juzgado nº 1 de Buenos Aires, República Argentina, que lleva adelante la magistrada María Servini de Cubría por delitos de genocidio y lesa humanidad contra los responsables de la conculcación de los derechos humanos durante el franquismo.

6.- Animar a la ciudadanía a apoyar la querrela contra los crímenes del franquismo, bien personándose como querellantes quienes fueron directamente represaliados o sean parientes de quienes lo fueron, o bien manifestando su denuncia de la dictadura y su adhesión a la querrela”.

Y para que conste y surta efectos donde proceda, sin perjuicio de lo que en definitiva resulte de la aprobación del Acta correspondiente, se extiende la presente certificación de orden y con el visto bueno del señor Alcalde, en Irun a de marzo de dos mil trece.

